

#YouAreNotAlone



#EzZaudeBakarrik



#PodemosAyudarte



ENTZUTE ETA ERANTZUTE SAREAREN BALIABIDEEN GIDA

Zertan lagun zaitzakegun
ulertzeko gida erraza :)

eman ta zabal zainu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERANTZUN GUZTIAK GALDERA BATEKIN HASTEN DIRA

Erronkak, beldurrak, zalantzak, galderak...

Unibertsitate-etapak aldaketak, erabakiak eta erantzukizunak dakartza. Horregatik, UPV/EHUren Entzute eta Erantzute Sareak lagundu egingo zaitu. **Pertsonen sare bat gara, UPV/EHUren ikastegi guztietan gaude, eta entzuteko eta behar duzun laguntza emateko prest gaude.** Ez zaude bakarrik; arazo akademiko, psikologiko, ekonomiko edo sozial bat partekatu behar baduzu edo zure egoera hobetzeko orientazio bila bazabiltza, lagundu egingo zaitugu.

Gida honetan, unibertsitateak zure esku jartzen dituen baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa aurkituko duzu.

Erantzun guztiak galdera batekin hasten dira... Has gaitzen garrantzitsuenekin!



IKASKETEI BURUZKO ZALANTZARIK AL DUZU??

→ LAGUNTZA AKADEMIKOA

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (IAZ)

Unibertsitate-ikasketei buruzko informazioa eta orientazioa behar baduzu, ikasketak aukeratzen, espedientea lekuz aldatzen eta araeekin eta baliozkotzeekin lagunduko dizugu, besteak beste.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

sou@ehu.es

Desgaitasunak dituzten Pertsonen Arreta Zerbitzua

Hezkuntza-behar bereziak badituzu, desgaitasun, nahasmendu edo gaixotasun bat dela eta, jarri harremanetan gure zerbitzuarekin eta eskura dituzun baliabideen eta laguntzen berri emango dizugu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

discap@ehu.es

Enplegu-guneak

Enplegu-aukerari buruzko laguntza eta orientazioa behar baduzu, hiru campusetan ditugun enplegu-guneak harremanetan jartzen lagun zaitzakegu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

enpleguguneak@ehu.es

Goi mailako eta errendimendu handiko ikasle kirolariak

Goi mailako edo errendimendu handiko ikasle kirolaria bazara, jar zaitez harremanetan gurekin eta kirol-jarduera eta unibertsitate-ikasketak bateragarri egiteko dituzun aukeren berri emango dizugu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

kirolak@ehu.es

BA AL ZENEKIEN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ESKA DEZAKEZULA ZURE CAMPUSEAN?

→ LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

UPV/EHUK Arreta Psikologikorako Zerbitzua du: laguntza, aholku eta orientazio psikologikoko zortzi eta hamar saio artean eskaintzen dizkizu doan. Gainera, lehen eta bigarren mailako prebentzio-programak antolatzen ditu, ikasleen ongizate emozionala sustatzeko.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

sap@ehu.es

EZAGUTZEN AL DITUZU GURE LAGUNTZA SOZIALEKO PROGRAMAK?

→ LAGUNTZA SOZIALA

Zaugarritasun ekonomiko-sozialeko egoeran bazaude, UPV/EHUK lagungarriak izango zaizkizun baliabideak ditu.

Unibertsitateko arrakasta akademikorako "Arrakasta" programa

Haur eta nerabeak babesteko sistemetatik datozen gazteei zuzenduta dago, eta unibertsitate sartzeko eta unibertsitate-ikasketak arrakastaz amaitzen laguntzea du helburu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

sou@ehu.es

**Errefuxiatuei eta asilo-eskatzaileei arreta emateko
UPV/EHUren programa**

Asilo-eskatzailea edo errefuxiatua bazara, unibertsitate-
ikasketei lotutako zenbait behar bereziri erantzuten lagun
zaitzakegu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:
oficop@ehu.es

Gazte solidarioentzako etxebizitzaren programa

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, Bilbao Etxebizitzak
erakundearekin eta beste udal batzuekin elkarlanean,
etxebizitza ekonomikoak eskaintzen dizkie UPV/EHUko ikasleei.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:
ostatu-bi@ehu.es

**EZAGUTZEN AL
DITUZU GURE
LAGUNTZA
EKONOMIKOKO
PROGRAMAK?**

 **BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Laguntza hauek zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzako
dira, ikasketa akademikoan ondoriozko gastuei aurre egin
diezaieten.

**Eusko Jaurlaritzaren eta Ministerioaren beka eta
ikasketa-laguntzak**

Ikasketetan laguntzeko beka orokorrak dira, matrikularen prezioa,
egoitza edo hiriarteko joan-etorriak estaltzen dituzten
osagarriak dituzte.

Jarraitutasun ekonomikorako laguntza itzulgarriak

Dagokion ikasturteko matrikula ordaindu ezin izan duten eta, ezusteko inguruabarrak edo denboran luzatzen diren inguruabarrak tarteko, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei zuzendutako laguntzak ditugu.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

ayudasmaticula.alumnado@ehu.es

Unibertsitate-masterrak egiteko laguntzak

Deialdi honen helburua da talentua UPV/EHUren unibertsitate-masterretara erakartzea, eta ikasle onuradunek laguntza ekonomiko bat jasotzen dute masterra egitearen ondoriozko gastuak ordaintzeko.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

convocatoriasyayudas@ehu.es

Eusko Jaurlaritzaren eta Ministerioaren lankidetzak

Ikasleek, ikasketak egin bitartean, unibertsitateko ikerketa-talde, -zentro eta -instituetan elkarlanean aritu ahal izatea da beka hauen helburua; hartara, ikerketa-lanetan has daitezke, zuzkidura ekonomiko baten truke.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

becas@ehu.es

Ordenagailuak: ikasgela libreak

Ikastegi eta campusetan, sarbide libreko ordenagailuak dituzten ikasgelak daude, helburu akademikoetarako erabiltzeko.

UPV/EHUko ikasleentzako maileguak

Matrikula ordaintzeko eta Erasmus programarako maileguak dituzu eskura, bai eta master-ikasketetarako berariazkoak direnak ere.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

convocatoriasyayudas@ehu.es

Odontologia Klinika

Irakaskuntza- eta asistentzia-zerbitzu honetan, asistentzia kliniko odontologikoa emango dizute Odontologia Graduoko ikasleek, haien irakasleek eta tutoreek gainbegiratuta.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:

clinica.odontologica@ehu.es

BERDINTASUN ZUZENDARITZAREN LAGUNTZA BEHAR AL DUZU?

→ **BERDINTASUNA**

Bereizkeria, abusu edo genero-indarkeriaren egoeraren baten biktima izan bazara edo transek eta ez-bitarrek izena aldatzeko protokoloa baliatu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Berdintasunerako Zuzendaritza.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:
berdintasuna@ehu.eus

→ **BESTE BALIABIDE ETA PROTOKOLO BATZUK**

Kexak bideratzeko protokoloa

Irakasleren batek irakaskuntzaren arloan ez-betetzereen bat egin duela uste baduzu, jakin ezazu kexak bideratzeko protokolo bat dagoela. UPV/EHUko Ikasleen Arautegian araututa dago.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:
ikasle.kontseilua@ehu.eus

Nahitaezko aseguruak

Istripu edo gaixotasun bat baduzu, edota ezusteko zoritxarren bat, berrikusi zer arrisku estaltzen dituzten EHU Ikasle aseguruak eta eskola-aseguruak.

Informazioa eskuratzeko eta harremanetan jartzeko:
ondarea.aseguruak@ehu.eus

#YouAreNotAlone



#EzZaudeBakarrik



#PodemosAyudarte



IKUSI GEHIAGO...

Hemen dituzu gida honetan aipatzen den informazio guztia eta ikasleentzako beste zerbitzu batzuk:



HITZ EGINGO AL DUGU?

Harremanetan jarri eta
lagunduko zaitugu

Zehaztutako baliabideez gain, entzuteko eta orientatzeko prest dauden erreferenteak eta kolaboratzaileak daude ikastegi guztietan.

Gurekin zuzenean
harremanetan jartzeko, jo hona:

entzute.sarea@ehu.eus

UPV/EHUko Entzute eta
Erantzute sarea

eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea